

FAMILIENTZAKO ATSEDENALDIA

Adimen-urritasuna duen pertsona zaintzen duten senideei atsedena emateko asmoz, urtean zenbait asteburutan ANFAS arduratuko da zaintzeaz, inguruko aterpetxetara irteerak antolatuz.

Kuota: 150€/asteburuko

IZEN-EMATEAK

Zure senideak hauetako programa batean parte hartu nahi badu, edo eskeinita ez dagoen jardueraren bat nahiko balu, gurekin harremanetan jar zaitez e-mail honen bidez:

rzsakana@anfasnavarra.org

ANFAS Sakanako ordezkari-tza

Uriz Kalea, 32 · 31830 LAKUNTZA

Tel: 948 57 61 52



Diruz lagunduriko erakundea:

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

2021-2022 IKASTURTEA

JARDUERAK

SAKANA



HAUR ETA GAZTEEN GARAPENA

ARRETA GOIZTIARRA 0-6 urte artean

“Arreta Goiztiarrak 0 eta 6 urte bitarteko haurrei, haien familiei eta inguruari zuzendutako ekimenak biltzen ditu, ekimen horien helburua hauxe delarik: ahalik eta lasterren, arrisku egoeretan edota garapenean ematen diren nahasketen ondorioz suerta daitezken aldi baterako edo behin betiko beharrei erantzuna ematea. Ekimen hauek haurra bere osotasunean kontuan hartzen dute, eta diziplina desberdinetan adituak diren profesionalak hartzen dute parte.” (Arreta Goiztiarreko Liburu Txuria)

- **Arreta Goiztiarra 0-3: Diruz lagundua %100**
- **Arreta Goiztiarra 3-6: Astero 45 minutuko saio bat: 100 € hilabetea**

GAITASUN akademiko, sozial eta komunikaziokoak

Programa hau nahitaezko eskolarizazioa bukatzen denerarte luzatzen da eta 6 urtetatik goragoko haurrei zuzendua da. Honen helburua garapenean zailtasunak edota adimen urritasuna duten pertsonak dituzten beharrei erantzuna ematea da. Lantzen diren arloak honakoak dira: gaitasun akademikoak, sozialak eta komunikazioa.

- **Astero banakako saio 1: 75 € hilabetea**
- **Astero taldean saio 1: 45,75 € hilabetea**

PSIKOMOTRIZITATE PRAKTIKA

Haurraren ekintza eta jolas espontaneoan oinarritzen da Psikomotrizitate Praktika. Psikomotrizitate gelan marko zehatz bat esakaintzen zaio haurrari: espazio, material, denbora eta psikomotrizista batekin. Marko honek haurraren segurtasun fisikoa eta emozionala bermatzen du eta bertan ematen den garapena integrala izango da; emozionala, kognitiboa, motorea eta soziala.

- **Astero ordubeteko saio 1: 40€ hilabetea**

FAMILIENTZAKO PROGRAMAK

FAMILIENTZAKO FORMAKUNTZA

GURASO ETA ANAI-ARREBA TXIKIEN TALDEAK

Programa hau adimen urritasuna edota garapenean zailtasunak dituzten pertsonen senideei zuzenduta dago. Honen helburua beraien ahalmenak garatzea, sistema familiarraren loturak indartzea eta oinarritzko formakuntza ematea da, euren portaera osasuntsua, sortzailea, eraginkorra eta aberasgarria izan dadin.

TEA sekzioa

- **FAMILIENTZAKO ESKOLAK** antolatzen ditugu, TEA duten pertsonen familiei eta hauekin lan egiten duten profesionalak zuzenduta. Eskola hauetan, familiek zein profesionalak haien egunerokotasunean aurkitzen dituzten traba eta oztupoak azaldu eta hoiaren aurrean kontuan izan ditzaketen estrategiak landu eta garatzeko espazioa eskeintzen da. Metodologia teoriko praktikoa jorratzen da. **130 €**
- **BALORAZIOAK.** Umearen edota nerabearen garapenean inguruko balorazioak egiten ditugu. Ondoren, txosten batean, familientzako zein profesionalentzako orientazioak proposatzen ditugu eta banakako interbentzio plan bat egiten dugu. **270 €**

INFORMAZIOA eta AHOLKULARITZA

Programa hau adimen urritasuna duten pertsonen eta beraien familiari zuzenduta dago. Honen helburua kezkatzen zaien arloetan eta bere bizi-bibilbidean informazioa eta aholkularitza zerbitzua ematea da.

Familien eta parte hartzaileen eskaeren eta proposamenen arabera, beste programa batzuk ere martxan jarriko dira.

Finkatutako kuotak ANFAS-eko bazkide diren familientzat dira, horrela ez bada gurekin kontuan jarri.